

OLERTI 1994

(Santiago Onaindiak sortua 1959an)

Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura 13. (1995) p. 283-347
ISSN: 0212-3223
Donostia: Eusko Ikaskuntza

AURKIBIDEA

P. Ezkiaga Poematxoak	287
J.B. Borthiry-Sala Larraintarrak huntü koblak	293
Sorlekhia	294
Gerlako kanthore 1915ian	296
14-18ko Gerla	297
14-18ko Gerlan presuner	301
Xiberotarra eta Manexa	303
1915ian	306
1940ko Gerla	308
Ernaniko bertsoak. 1962ko kanporaketa	310
Goizeko jardunaldia	311
Arratsaldeko jardunaldia	334

POEMATXOAK

‘Zeren munduari barkhatzera,
ezin deusek ere balakatu zuen eta ez amoratu,
bere semearen heriotzeak baizen’

(Axular)

Suziri festa Belagoa gaineko espazio planetarioa,
hidrogeno hodei sotiletik errestan izar berrien sorkuntza,
eguzki bakoitza bere lurrarekin, gu denon unibertsoa
bakarrik ez egotearen ziurtasuna, beharra, oturuntza.

Gero eta gorriagoa urruntzen diren galaxien argia,
oihartzundua, tren joanaren txistu lausotua bezalakoa,
gauean bidaia eta gauean babesten gaituen geltokia,
mugitzen ez den argia soilik ziurtakorra eta beroa.

Eta, halere, izar jaio eta izarrez bizi naizen zentzua,
aspaldiko galaxietatik dela etorria nire lorea,
izar izateko hilko denaren bizitza ez dela antzua
eta nirea ez dela amodiotik ahanzturarako bidea.

Patxi Ezkiaga

'Eta hobe da batekin zoazin parahisura,
hamarrekin ifernura baiño'

(Axular)

Suaren erreketaren soinua
taupadaka datorkit
brisara mehatxulari eta
hala ere ziurtakor bezala,
mihi bakoitzarekin
meheago,
ostatueta ateetatik, plaza,
eliz eta aberrietatik harandi,
oihartzun bakoitzarekin
sotilago.

Nirekin jarri da
eta nirekin egin du
ezpalak ezpalarekin bezala
ezkutuko musikarako
hurbilketa,
isileko espaziorako
deia.

Argi aratz baten gartzelan
izpien burniek
hautsen dantza arautzen duten
bezala
sartu nau azken doinuaren
erotismo itsu, arri
ukikorrean:
oihu
galdera
keinu,
hurrengo aztarnarentzat akorde.

Patxi Ezkiaga

'Pour nous, sondons notre coeur'

(Jean de La Salle)

Ibaia behatzen dudanean ala heriotza
mintzatzeko asmatu nahi nuke hitzik argitsuena
jarri ahal izateko behingoz egutera laiotza,
bizien bideskan norantza bat baino ez duena.

Galtzera noan guztia berreskuratu nahi nuke
alanbrezko hesietan utzi ditudan puskak haina
haragia bera, ez dakidan arren zeren truke;
ilenti nimino honekin batera argitu ezjakina.

Hegaldi llabur hontan laztandu ez dudana ukitu
nahi baitut eta brisara izuti hau indarrez jantzi,
jakin dezadan ezerezak ez nauela gainditu,
eta esperantzak ez duela bere hitza ahortzi.

Patxi Ezkiaga

HANGO ETA HEMENGO BERTSOAK

J. B. BORTHIRY-SALA LARRAINTARRAK HUNTÜ KOBLAK¹

Batixta Borthiry-Salla (1889-1974)

- Larrañe Sallan sorthürrik, 1889-ian
- Gazte denbora, etxekueki laborantxan
- 1914-an, gerla
- 1915-ian, kolpatürrik, etsaien eskietan
- Prüsian presuner
- Frantzialat igorririk, kolpatü handieki
- Bordeleko Ospitaletan
- Gerlonduan, Bordelen menüser
- Azken urthiak, eri handi, Atharratzeko Ospitalian
- 1974-ian hilik
- Larrañeko ilherrietan ehortzirik

Gizun goxua, izpiritü argia;
Hanitx ikhusi dü,
Hanitx sofritü ere;
Bestelan erakutsiko othe zeiküna
koblakako zian gano ederra?

Huna Larrañeko seme horrek izkibüz
ezaririk zütian koblak:

- Gazte denboran
- Gerlako lagüneki
- Presuner Prüsian
- Gerlonduan, ikhusi eta egari izigarrikeriez
- Bordeleko Eüskaldüneki
- 40-45-eko gerlaz

Ziberotar ororen izenian, Batixta zenaren
arrebari eta Sallako familiari:

ESKERRIK HANITX!

1) *Oleriti* poesia aldizkari izan da sorreratik. Baina bertsoen eta bertsolarien tokia ere bai. Gaurkoan Zuberoko koblakari baten berri eman nahi dugu. Marcel BEDAXAGAR, SU-AZIA batarsunaren idazkariari esker agertzen dira kobla hauek. Han bildu zituzten eta baimena eman digute *Oleriti*n argitaratu eta ezagutarazteko.

Euskalherri osoko bertsoak eta bertsolariak ezagutzen lagunduko digute, Zuberoko bertso hauek. Eskerririk asko.

J. M.^a Etxebarria.

SOR LEKHIA

1

Bere sor lekhiari bethi zer bait zor da,
Nik eman nahi deiot bizpa hirur kobla;
Etxe xuri ttipi bat aldian bi borda,
Han irus igaran düt ene haur denbora.

3

Haurreko egün goxuk xokho maite hortan,
Nik igaran izan tüt mendiaren zolan,
Aita ama huneki, oro laborantxan,
Ni bosgerrena nintzan hamar aurhidetan.

5

Anaia hasi denin ahen behieki,
Bata dü mantsoegi, bestia hez berri;
Aberen deizalia nun den ez ageri,
Hen planta ikhus eta egiten düt erri.

7

Eiheratik arratsen asto beltz azkarra
Zakü xuri bat gaiñen dua peti gora;
Biba alhorrak eta eihera xaharra,
Ogirik ezpadate, badate mestüra.

9

Khantore zaharretan behin nintzan hasi,
Ardiak juan zeiztan berak mendiz mendi;
Bidia bazakien nik beno hobeki,
Anaie gehienak beitzen erakatsi.

2

San Josefén oihana eta Erroimendi,
Arratako bixkarra, bai eta Bürkhegi,
Oro ageri dira ene etxondoti,
Udan berde berdía, negian aldiz xuri.

4

Haurreti gust banian breset berrietan,
Nula aita guriak goldenabarretan;
Errabian beharrez ari lan orotan,
Fantesia banian salbü artho jorran.

6

Ttanpa ttanpa ari da eihera xaharra,
Aiten aitek egina han behar bezala;
Bi erreka ttipitto jinik algartara,
Bien medioz badü behar din indarra.

8

Nik ez dütüt berritan, ene haur denboran,
Zagollak gibeletik higatü eskolan;
Ardüra-ago nintzan ni mendi maxelan,
Ardien bazterrian khanta errepikan.

10

Gure llabrit xaharra orthütsik da bethi,
Eztiki badabila othier ihesi;
Nik manhatü bezala jin zait ardieki,
Harek, gaixo txakürä, zer eztü merezi ...

1 1

Errepikan etxerat arrats aphilari,
Aita akhiturik da alharzian jarri;
Eztu erraiten bena goguan haiñ sarri,
Ardiak eder eta artzaiña khantari.

1 3

Bedatsian txoriek goiz die khantatzen,
Ait'amek ez dütie ohetik entzüten;
Ixil ixila dira goizago jeikiten,
Haurrak beilhitü gabe zunbat lan egiten ...

1 5

Nahiz eta anaiak ezkiren agüdo,
Arrebak ez dirade jeikiten aisago;
Txipienak, pruntenak, ohetik hau dio:
«Ixilik üt gitzatzü othoi lo giren».

1 7

Udan ixurten dügü biga bost izerdi,
Artzaiñak egiten dü bortü goran erri,
Ez da ez arrenküra etxen zer den berri,
Phetiri Santz ez badü hüllanturik sendi.

1 9

Negüko arratsetan dügü lana franko,
Aitak badü beste bat gük bat egin baiko,
Ardi, abere eta bohor, asta, mando,
Txakürra baizik ez da kabalerik kanpo.

1 2

Oro biltzen girade ülhün ñabarrian,
Ferretak argitzen dü gure sükhaltian;
Uthürriko bidian, argi azkorrian,
Urhia bezañ holli, amaren бүrian.

1 4

«Jeiki, jeikin hasten da bai ama guria;
Ekhi jeikitzia da haurren thenoria,
Goraki khanta ezak, kanpoko txoria,
Nik entzün eztezadan amaren oiha.

1 6

Ama guriareki deüse ez da galtzen,
Erri bat egin eta berriz beita hasten:
«Haurra, lo izan bahintz ehian entzünen.»
Nik ere hala hala nian phentsatzen.

1 8

Bortian bag' ostua erorten da hasi,
Orhik ere mothua xuririk dü jauntsi;
Anai ardieki botzik da eraitsi,
Orai lanin gureki beharko dü ari.

2 0

Lau hogeien artian gure ardi belba,
Hameka behi eta bizpalau bigantxa;
Adina jin deneko badüt esperanka
Ehün pixtola dothe, biba laborantxa!

2 1

Hamar bat txipi handi gure süthonduan,
Aita züzülian da pipa bat ahuan,
Breset hoi en muldatzen ni beste xokhuan,
Bihi batek ez daki zer düdan goguan.

(Larrarien, 1908-an eginik)

GERLAKO KHANTORE 1915-ian

1

Hogei ta zunbait urthe dian gizun bati,
Gustü zaio khantatzia zunbait breset berri;
Espikatü nahi düt elhe gütieki
Hebenko bizitzia eztakianari.

3

Urhats oroz batügü alde güzietan
Lagünak ehortzirik adin ederrian;
Zurezko khürütxe bat thunbaren gaiñian
Markatüz hila dela bere zerbütñian.

5

Ait' et' ama hanitzek semiak galdürrik
Bestiak alhargüntsa gaxuak trixterik;
Zunbat arima gaxo hola baratürrik
Ihurk ezin kunpreni Jinko Jaunak baizik.

7

Sei hilabete dira orai igaranik
Sü izigarri hau dügüla hasirik;
Frantziaren egizie othoitze handirik
Etsaiak izan ditin laster ohiltürrik.

9

Lanjein izana gatik oi gure bizia
Gureztat ez balio hanitx lotsatzia;
Sorthüz geroz zor dügü ororek hiltzia
Bena egon dadila bizirik Frantzia.

1 1

Breseten egilia deitzen da Borthiry
Gerla, hastetik hunat, jarraiki dü bethi;
Goraintzi bihotzeti Uskal Herriari
Jinko Jaunak lagüntza hel dezala guri.

2

Agorrilan hasirik, gai-egün güziez,
Ebi ala atheri, beroz ala hotzez,
Salbatü beikirade, lür pianbgonez,
Ikhusi gabetarik ezpeitaite sinhets.

4

Egün oroz nunbria zaikü emendatzen
Jinkuaren mania arauz hala beitzen;
Gazteriarik ezta haboro baratzen
Azken jüjamentia othe zaikü heltzen ...

6

Trixeziaz ez behar nihauren mintzatü
Gizun gazte niz gerlan iruski agitü;
Zunbat aldiz nai horrek untsa kontsolatü
Ait' ama et' aurhider düt üsü phentsatü.

8

Gure konfidantxa da osoki handia
Ikhusiz algarreki dügün ünionia,
Errespetatüz bethi erlijionia
Gureztat izan dadin hil ondun zelia.

1 0

Lagün biga girade algarri jüntatü
Breset hoién huntzia holaxe haitatü;
Arrenküra haboxik gordatzen dütügü
Uskaldünek algarri kontsolü zor dügü.

1 2

Hamabi breset horik dütügü khantatzen
Uskal Herri maitiaz girelarik orhitzen;
Aizina dügünian Jinkua othoizten
Bizirik ützültzia deiogü galthatzen.

14-18ko GERLA

Ahaidia: Ahaide delizius huntan...

1

Zorthiak zer ekharri deitan ene gaztetarzünian!
Turmentü eta eskernio enetzat bazen mündian.
Sobera badüt ikhusirik edükiteko бүrian,
Breset zunbait adela-eta igorten tüt üngürían.

3

Obligazione bat beita gizun gaztiarentako,
Legiak eraman nündian hogeï urthetan soldado;
Bi urthe han igaran-eta beste biez berantago
Gazteko en' egün ederrak han izan dira akabo.

5

Gerla zien bai deklaratu zeñiak ere mintzatü;
Xamar, bunet, makhil gorria, oro nütian kitatü;
Herriko gazte lagüneki orano behin dringatü,
Hetarik zunbaiti eskia asken aldikoz tinkatü.

7

Etzena deskoajagarri gure aita amentako
Hamar haur nekez hazirik, lau seme gerlarentako...
Mania gñnian bezala nunbait tiroka hasteko,
Gü bezalako ogen gaber jakin gabe zerentako.

9

Aiñhera batek gaiaz gai dü guri ekharri berria,
Frantziari dela sokhorri galthoz Beljiko erregia;
Bi miliu Prüsianoi бүruz haren armada ttipia,
Axuri bat hartzari бүрүз üdüri dü ezartia.

2

Izpiritü aidusa nian hasirik gazte gazteti,
Denbora hetan irus nintzan ait' et' ama aurhideki;
Ardüra nintzan deskantsian ene gazte lagüneki,
Damürik ezpeitüt ordian ez profiteatü hobeki.

4

Mila bederatzü ehün ta hamalau gerren urthia
Agorrilaren bigerrena orhit edükigarria;
Europa sütan ezari die hartarik mündü güzia,
Phizteko aski izan beita bi gizonen ürgüllia.

6

Alagera egin beharrez phartitü nintzan etxetik,
Ama nigarrez ützi eta aita begiak betherik;
Lau aurhide gaztiak ere baratü ziren trixteric
Sor lekhiaren bol' üztiak etzeitan egin plazerik.

6

Armatü eta juan ginen Lorreneko bazterriia;
Manü berri Norl aldilako, Joffre handiak berhala;
Aleman tzarra, senditürik nun bazen phasü Zabala,
Sarthü beitzen Beljikan barna, aize kolpia bezala.

10

Mirakülliak oro ziren leheneko denboretan,
Gerla hasten ikhusten zien bardin zelüko izarretan;
Eztüt ikhusi izarretan, haboroziz ametsetan,
Xarleruako hiri ederra bazueja sü-garretan.

1 1

Beljikaren zorthiaz eztüt erraiten ahal besterik,
Etsai krüdelak hartü deitzo alhorrak ogiz betherik;
Batalla galdürük girade ützüli juan bidetik,
Lagün hil franko han ützirik, bortxak ezpeitü legerik.

1 3

Alemanio Printze handi, Enperadore semia,
Marnan deie untsa zerratü Pariserako bidia ...
Bi ehün mila frantses soldadok han ützi die bizia,
Hen odolian itho zaio bere ürgüllü handia.

1 5

Bilhagarrua da mintzatzen goizan argi azkorrian,
Heben orruaz hasten kanuak Kraoneko bixkarrian;
Txoririk ez habo phausatzen Hurtebizek' oihanian,
Zühañ adarrak beitrade mila frisetan lürrian.

1 7

Oren trixterik balin badü nurbaitek ükhen mündian,
Gai egünak han igaran tüt lagün bat hilik aldian;
Beren hiltzat ützirik, naie altxatü bihamenian,
Zaiñetan odol güti, bena hatsa orano banian.

1 9

Nuntipaitik naie ekharri, galdürük ezagützia,
Palazio batetan ezari, arra-jin baiko zentzia;
Eztüt ez heben arrixkatzen aphilago erortia,
Lürrin plaiñ plaiña düť ohia, lastua mehe mehia.

2 1

Igan nizan lekhietaz düť ükheiteko oharmentxa,
Partikülarzkiago hetan Laoneko Providentxa;
Dama khürütxe gorri dün eta sositete plazenta,
Bizia deitabe salbatü, ezpenian esperantxa.

2 3

Zunbat mila heben bagira «Ya Wall Krigsgefangenen»,
Gizun handi bat ere huna heltü da gü beno lehen;
Phetisantzen ezagützia bertan nik egin düť heben,
Bai eta untsa borogatü urthez eta urthez nur den.

1 2

Hülanta gure aztalian, aisa dük erri egiten;
Nahiz eta hire paradak gü ezkütian isitzen;
Zaldia eroriz geroztü, hik eztakik ez ebiltzen;
Galdü badügü ere Gisen, ehiz orano Parisen.

1 4

Aiphatü gabe nula ützi, hi, jaun Enperadoria,
Hik hitzeman apaidü baten jakin diat ixtoria;
Joffre handiak eraman dik hik galthatü bitoria,
Eta holaz ophortü hire Pariseko bazkaria.

1 6

Bere malürrez ohartzetik nahiz ezten profiteürük,
Oren hau etzait ez seküla juanen phentsamentütik,
Kolpatürük erori baiko etsaiez üngüratürük,
Enian besteri phentsatzen nintzala baizik galdürük.

1 6

Egünak duatzta ondozka bena ez algar üdüri,
Gizunak ere ez dirade ez oro bardin bühürri;
Batak nündin botatü nahi nunbait hurilat zübüti,
Nahiz etsai bestia ere, eztü egitera ützi.

2 0

Ez hil ez bizi, eraman naie nunbait Frantzia gaiñila,
Larrañe Salan aldiz tristerik berri gabe ait' et' ama;
Gaixo aiñhera, hi abilua othoi mezüler bezala,
Etsaien aztapar pin, bena orano bizi nizala.

2 2

Ahal bezala hasi baiko bermatzen zankhuetara,
Alemaniat eraman naie zalhe Beljikan behera;
Konfidantxa oro zütan diť, gure Frantzia ederra,
Berriz ikhusi nahi nüke Orhiko bortü bazterra.

2 4

Gai batez plana idekirik alagera nintzan jeiki,
Eta laster akomodatü ene lagün zunbaiteki,
Behar güñiala phartitü Frantzialat Süisan gainti,
Phetisantzi deüs' erran gabe, lotsaz lekigün jarraiki.

2 5

Presuner igaran denboraz llabürzki nahi düt muztü,
 Etsai tzarrak atzamaitia aski zeitadan afruntü;
 Gose eta miserietzaz nahi banü eman khuntü,
 Beste haiñ beste breset orano behar neizketzie huntü.

2 7

Gützaz dira ohartü ere Frantziako gizun handiak,
 Dexanel minixtruak deizkü eman lehen uhuriak;
 Elh' ederrez flatatü nahiz estropiatü trixtiak,
 Aire hortan eztü khantatzen ez ene phentsamentiak.

2 9

Gero mila trakaseria heltü baiko Bordelera,
 Etxeko edo adixkide bethi nurbait ikhustera;
 Badakit untsa huna ere jin nizala sofritzera,
 Bardin zait, orai Frantzian niz, jin baniz heben hiltzera.

3 1

Banua hogeï hilabetez egonik ospitaletan,
 Frantzian et' Alemanian barber handien eskitan;
 Musde Lebreton Paisekua izentatzen düt haietan,
 Harez baizik enintzateke beste haiñ beste lür huntan.

3 3

Hariba ehiz zotükatü hi sorthü lekhüti,
 Hantxe gure etxe xaharra, aldian bi borda xuri;
 Begiak jarri zaizt errada, dütüdanian ikhusi,
 Phartitü nintzan lekhiala bazterrek naie urthuki.

3 5

Lau urth' et' erdin büian dütü etsaiak armak phausatü,
 Foch-ek egin kondizione güziak dütü hunhartü;
 Orai badügü bitoria bai eta aski espantü,
 Bena hilak ez arraphitzü, ez estropiatak sendotü.

3 7

Zerbait ikhas niokiala orano üdüri zeitan,
 Eta korajez untsa munta apendiz phartitü nintzan;
 Madikatü gerlaren kausaz holaxe niz adin huntan,
 Zola zolatik arra-hasle hogeï ta hamar urthetan.

2 6

Agur deiot igaraitian Süisako jentiar,
 Hari esker erranen deiot bihar Frantziakuari;
 Dolore ororen artetik bihotza khantüz zait ari,
 Libertatia aski beita'sofrimenen eztiagarri.

2 6

Lionen ükhen batzarria dezagün erremestia,
 Sala eder amiragarri arrusaz lilistatia;
 Mintzaldi eta promes franko eta bazkai bat handia,
 Hoik oro beno ederrago gük dügün libertatia.

3 0

Milaka dirade erorten Verduneko güdüketan,
 Zunbait hasperen düt igorten gaiazko oren lüzetan;
 Berririk gabe han galdü düt zaharrena anaietan,
 Jinkuak jakin nul' izanik hura azken orenetan.

3 2

Agur deiat Maule alteti, agur Orhiko bortia,
 Bedatsiak igaraitian khentü deik mottho xuria;
 Hürrüntik ere boztario diat hire ikhustia,
 Beitakit hire alde pian dela ene sor lekhia.

3 4

Esker hunak deitzat, Armada, hik egin deitadak hunki,
 Ene gatzetarzün ederra eman deiat maleruski;
 Estropiat ezari eta igorri naik ephantxüti,
 Etxekuen karga naik üti phentsione txar bateki.

3 6

Ama ere ber abiseko, aítak zeitan proposatü
 Anai galdiaren lekhia etxen nahi ninez hartü;
 Infirmitaten kausaz eztüt eskenia ez hunhartü,
 Eta nunbait ahal lekhütan ene ogia txerkhatü.

3 8

Bakharrik zait beharko bizi hürrün ene sor lekhüti,
 Bethi besteren bazterrian nunbait galdü bat üdüri;
 Mündian irus izateko aski da bai gaiza güti,
 Nik arauz enian merexi zorthiak ja ezteit üti.

39

Ene beithan igaraiten düt ihur ere othe denez
Nik bezala sofritü dinik dolorez eta moralez;
Bostetan hasi niz khantatzen bihotz trixtia nigarrez,
Ene bihotz min eta phenak orori gorde beharrez.

40

Lür trixte huntan baniago nik eztakit zerentako,
Gazte denboran ja izan da bonür güti enetako;
Lotsa aldiz zahar ondua jin dakidan sordeisago;
Aurhide, küñat eta llobak, zien gomendian nago.

41

Breset hoietan aiphatü düt nulako zen ene xantza,
Hala eztenik hitz bat ezta, segürrago zerbait falta;
Diskrezione hau düt galthatzen, nula beität esperantxa,
Nihauren aitzinian othoi ihurk eztitzala khanta.

(1919-an eginik)

14-18KO GERLAN

PRESUNER

1

Eniz Uskal Herrian jeiki egün goizan,
Orhi bortia eztüt gehiago bixtan,
Ez eta üskaldunik ene lagünetan,
Emur huna düt bardin, Prúsia erditan,
Bi breset huntüko düt nula bizi nizan.

2

Eskortak üngürían ni hebentxe nago,
Printze batek elüke uhure haboro;
Enetzat nuntik jin da bonür bat holako,
Hau da bai hau lekha behar bezalako,
Aberats izan gabe auher bizitzeko.

3

Nik irus izateko zer othe düt falta,
Libertatia baizik eta zunbait gaiza;
Khanbera bazterrian düt arrabineta,
Ogi gütixko bena indartsia beita,
Hau ezta xuri, eta gabia da beltza.

4

Ni nagoen etxia da egin berria,
Harginaren ixilik dena xarpanteria;
Jünta güzietarik kanpoko aidia,
Goiti so egin eta üdüri zelia
Erdi zohardi eta izarrez bethia.

5

Janhari trende hunez orai nadin mintza,
Güziez orhitzeko nihaur aski niza?
Ardürarenik dügü jaten friandiza,
Hebenko muda ezta Frantziako gisa,
Gerriko zintüra da behar bethi tinka.

6

Salda elegant hunez zerbait xehetarzün,
Begirik balin balü elütüke ülhün;
Badü elegantzia berheziki egün,
Hirur garbüra zankho zopetarik hürrün,
Dantzan ari dirade, gük khanta dezegün.

7

Hogei ta hemeretzü, berrogei eneki,
Marmitari üngürü gure gameleki;
Hirur satanak dantzan orano ederki,
Hatik eztira egon lüzaz algarreki,
Zorthiak eman deit ja hetarik bat eni.

8

Hirurek ükhen dügü holakotan aski,
Gure zorthiaz bekhatx hogei hamazazpi;
Erdia eskentzeko ene lagün bati
Ganitik eztüt eta esküz ezin hautsi,
Hunen jüsa ezpeita herakitzen hasi.

9

Heben üsatzen die faltatiaz kanpo
kartofel egosia pattattekilanko,
Früta, legüma eta ezür, osto zankho;
Asteko egünetan gaiza huna franko,
Phentsa arren ordian igante goizanko.

11

Kafiaz berheziki badie ürgüllü,
Egünian bi pinta bakhoxak badügü;
Gozo samin azkarra, ezta miraküllü,
Gillomek baizik nurk dü jokü hau phentsatü,
Gagar eta zi.errez hura dü beltzatü.

13

Zikiruak hazten tüt gustü ederrian,
Nihauren khostüz bena Gillomen lürrian,
Lau hoge kanpo eta ehün barrükian,
Arratsen etzaten niz ülhün ülhünian,
Otsuak begirari bethi üngürrian.

10

Egün ja ükhen dügü, egiaz mintza nadin,
Erien favorable, janharia arhin,
Liberdiko arraiña zazpientzat bardin,
Zapata zola üdüri den larrü bateki,
Hunek izan behar dü Jüiferranen adin.

12


Ofizier badügü bai eta medikü,
Hoiene küriustarzünaz niz aperzebitü;
Zer ofizio düdan batek deit galthatü,
Nik ahalaz uneski egin arrapostü:
Jauna, heben segürrik zikiro zaiñ nüzü.

14

Espanto egiteko zer düten azkenian,
Hortxe milakaz dira aizo lehenian;
Trükada bat egin düten belbik ezpenian,
Beste zunbait e' saldü jun den egünian,
Mantenatzeko untsa soberà benian.

15

Hitz batez erranen düten azken bresetian,
Hatü franko düten eta bizi miserian;
Jesüs lagüntü naizü khantoren huntzian,
Orai ezar nezazü oi libertatian,
Ahal ditzadan khanta Eüskal Herrian.



XIBEROTARRA ETA MANEXA

Ahaidia: Agur, adixkidiak, Jinkuak egün hun ...

1

Bordaleko garatik hurbilxko nonbait hor,
Plaza bazter batean «Hôtel du Lion d'or».
Toki aberats baten feita egin daut hor,
Kapelu dunik barnen ba othe da nehor,
Sogitera sarthu naiz ezpeniz ahalgor.

2

Agur erran dut eta boneta eskuan
Nola haur gazte batek eskola bidean;
Bakarrik jarri nintzan sala bazterrean,
Bonet dunak baziren bertze bazterrean,
Nik ere eman nuen zalhuxko buruan.

3

Gauko alojiaz dut prezio galdatu,
«Hoita zazpi libera» nausiak erran du;
«Hoita zazpi libera, khariotto duzu,
Hamabost liberetan politki dukezu».
Erditi egin eta, gira akordatu.

4

Jendeak hasi dira neri so egiten,
«Hoi ez da Frantzimenta» batek du erraiten;
Bordales batentako enaute ez hartzen,
Nihaur ere hasia nintzan mesfidatzen
Frantsesa enuela aski kharrakatzen.

5

Musian hasi dira, nausia bertzeki,
Denak Xiberotarrak dira mintzaiteti;
Ederki gerthatzen naiz gaur Eskualduneki,
Orai afalduren naiz trankil bihotzeti,
Gero emanen ditut bi bertsu gozoki.

6

Permetitzen dutenez dener galdaturik,
Hasi naiz bersuetan ongi afaldurik;
Nere goguan baitut zenbeit phentsaturik,
Xiberotar hoik baizik ez da Eskualduniki,
Nehork nazen ataka nik ez dut beldurrik.

7

Denek egin dautade batzarre gozua,
 Kanpañan jarten naiz emanik eskua;
 Jende karesatzeko bego Xiberua,
 Ostatuko nausia gizon bat gozua,
 Aldean jarri baiko bethe daut basua.

9

Gure Eskual Herriko zazpi Probintzetan
 Uste dut izan naizen zoko guzietan;
 Bi horik atxiki tut bethi nere beithan
 Zazpian nausiak bi joku horietan,
 Laphurdi bersuetan, Xibero dantzetan.

11

Orai amatur batzu badira nun nahi,
 Hetarik bat zu zira, ageri da klarki;
 Ez othe nauzu hemen atakatu nahi,
 Laguntzen naualarik Jainkoak zeruti,
 Nere nausia ez da jinen Xuberoti.

13

Pratika emaiteko zure thalentari,
 Nere kontra ardura behar duzu ari;
 Badut eskolaturik hanitz bertsulari,
 Nihaurek erraitera, etzauzula gaitzi,
 Laphurdin uzten nute bersuetan nausi.

15

Hanitx ederki duzu bertsua muldatzen,
 Xiberotar batentzat nuzu estonatzen;
 Haurrak errejenteki dira eskolatzen,
 Esku zapartaka da konpañia hasten,
 Zuk letzione gutiki duzula ikhasten.

17

Bihotza jo dautazu oraiko persuan,
 Aspaldin bazinuen hoi zure goguan;
 Zu baino hoberik da arren Xiberuan,
 Othoitzen zaitut bede ixil ixila han,
 Zuharen kontra ere nik badut aski lan.

8

Ezinago uneski zirade mintzatzen,
 Gaur zure presentziak gütü zinez bozten;
 Laphurtarra zirade ezpaniz trunpatzen,
 Arrunt has zite othoi zerbaiten erraiten,
 Uskal Herri ederraz zer düzü phentsatzen?

10

Gure Uskal Herrian, bai düdarik gabe,
 Ziberotarra dantzan üt z bedi errege;
 Koblakariak ere zunbait badirade,
 Nahiz eta ez diren Laphurtarren pare,
 Gütü bat ari dira jökü hortan ere.

12

Eztiit phentsatü ere zur' atakatzia,
 Orano gütüago nausi izatia;
 Gaztetik düit kitatü nik Uskal Herria,
 Gero ez pratikatü, ahatze ikhasia,
 Kuntsidera ezazü en' iñorantzia.

14

Lehen ere entzün dit zük erran bezala
 Koblakari nausia Laphurdiko dela;
 Irus nago jakinik, Jauna, zü zirela,
 Haurrak errejenteki eskolatzen dira,
 Nik agian zureki eginen dit hala.

16

Batere ükhen gabe pretentzionerik,
 Jauna, kuntzellü hun bat emanen deizüt nik;
 Xiberuan badüzü ni beno hoberik,
 Hurak hobe tützie ixilik ütirik,
 Hen kuntre Laphurtarrek lükie galdürük.

16

Ezta ez fidatzeko Xiberotarreki,
 Etxahunen fama nik entzüten dit bethi;
 Fama gabiak dira egoiten diskreki,
 Pharitü nintzanian basa bazterreti
 Ene nausi kosi bat herrian dit ützi.


19

Pruntegi izan baniz behar zu barkatu,
 Biek behar ditugu eskuak tinkatu;
 Delako amatura doi doia dut partu,
 Azken huntan nahi dut klarki deklaratu
 Gaur Bordelen nautela uste gabek hartu.

20

Gure artian, Jauna, aisa da pharkatzen,
 koblakariak dira bethi amodatzen;
 Bihotzetik dereizüt eskia tinkatzen,
 Zure letzioniaz erremestiatzen,
 Ardūra zitian jin nūke desiratzen.

(Bordelen, 1928an eginik)



Kobla hoik heñ huntara izkibüz ezaririk güntian, nuiz eta Batixta zenaren arrebak, Mad-dia Onnainty, Atharratzeko Ospitalian denak, hel-erazi beteikü beste breset zunbait. Heben ezarten dütügü, ez izanik ere beren lekhian, ezi khantore bata eginik izan zen Prusian, 1915-ian, eta bestia Bordelen, azken gerla denboran.

1915-IAN ...

1

Oi zer plazera ükhen düdan goizan iratzartzian,
Txori bat khantüz entzün eta, ustez nintzan Frantzian,
Bena heben niz maleruski, krüdel hoiien esküpien,
Ametsak oro Frantzian, bena heben nago, bai Prüsian.

2

Txori botz ezti xarmagarria, loriusi khantatzen dük,
Ar'eta goiz dük orano, bena hi entzün eta jeiki nük,
Lekhü trixte huntan, heben, hire botza arrotz dük,
Frantziarik jin hizanez galthatzera ausart nük.

3

— Erraiten deiat bai berhala Frantziarik jin nizala,
Jaun Presidentak igorri nik bere haurren ikhustera,
Bena nula naik ezagützen ni heben arrotz nizala,
Uste düka Alemanian erresiñolik eztela?

4

— Badük bai, bena khantatzen die hire airetik khanbio,
Errepikan bethi ari tük, ustez gure inganio;
Erresiñolak entzün, bena papo-gorri gehiago,
Eüskal-Herriko kardinaliak beinütüke nahiago.

5

— Eüskal-Herrilat ützüliko hiz, eztezala berant-etsi,
konfidantxa ükhen ezak, eta koraje har bethi;
Jaun Presidentak igorri nik jakitera zien berri,
Eta erran ditak jinen zaiziela libratzera armadeki.

6

Jaun Presidentak bahai igorri jakitera gure berri,
Ezkirela gü irusenak erranen deiok nik exi,
Mehaxü petan esklabo, eta erdi gosez aldiz bethi,
Galeretako gaizki eginak uste diat diren hobeki.

7

Har'zak koraje, plazerez dükek phena hoién ondoria,
Frantses soldaduek ükhenen die uhure eta lona,
khantüz deie bai egün batez ekharriko bitoria,
Etandarrak gorarik, eta bandera trikoloria.

8

Egün hura, oi bena bertan Jinkuak argi baleza!
Kontsolatzeko har dezadan arma eta baiuneta;
Nik bezala sofritü dianak ezin beitiro ez pharka,
Azken Prüsienak ezarten diano Frantseser bürüz ezpata.

1940-ko GERLA ...

1

Himeretzü ehün eta berrogei gerren urthia,
Alemaniako armadak garhaitü dü Frantzia;
Hunki gabe ützi balü gure Eüskal Herria,
Nik enian phentsatüko berset hoi en huntzia.

2

Zorthe gaitza Frantziako popüliarentako,
Bi miliu presu, eta bestiak esklabo;
Haien gaiñen ezdüt nahi deüsik erran haboro,
Libro-ago ...¹

3

Nik entzüten düt erraiten gerla dela galdürük,
Bestek erran nahi die gü girela saldürük;
Tratü horren egiteko araus ezta gizunik,
Nula nahi izan dadin, guretzat ez deüs hunik.

4

Jüstizia galtho dago Frantziako jentia,
Sü-garretan dela dio ogendanten lekhia;
Tribünalak balü ere hentzat indüljentzia,
Jaunen Jaunak eginen dü azken jüjamentia.

5

Beste ororen gaiñetik hau da tristegarria,
Bi phartetan ezaririk Eüskal Herri maitia;
Sor lekhilat juaiteko zerratürük bidia,
Gaiaz ere ametsetan han düt phentsamentia.

6

Diala hogeï ta bost urthe, gazte nintzan ordian,
 Zunbait berset huntü nian presu Alemanian;
 Hoik ere huntzen dütüt kasi planta berxian,
 Mintzatzera ez haizü, eta gosia sabelian.

7

Gal-aiñhera, abilua Alemanen gaiñeti,
 Erran ezak Ziberuan hebenko zerbait berri;
 Kuntsertatzen ahal bahiz ene adixkideki,
 Jakin ere nahi nitek han direnez hobeki.

8

Lürrez hor Alemania, Angleterra huretan,
 Orotako azkarrenak dira erresumetan;
 Urgülliak erhotürrik bat bada gizunetan,
 Oihüz dio ari dela mündiaren hunetan.

Tuloneko mariñelak, orai zier uhure,
 Amiralaren ordria hola ezpazen ere,
 «Boche»-r ützi nahi gabez ehün untzi hoik ere,
 Biba, ziek dütüzie denak hurpian gorde ...

(1) Herroka hau kaier zolan deseginik da.

ERNANIKO BERTSOAK

1982ko txapelketako kanporaketa (1982-XII-10)

1962ko bertsolari txapelketan kanporaketa hauek egon ziran Gipuzkoan: uztailaren 8an Bergaran; uztailaren 22an Deban; abuztuaren 2an, Azpeitian; abuztuaren 4an, Oiartzunen; agorraren 30an, Beasainen; urriaren 7an, Tolosan; azaroaren 11an, Eibarren. Kanporaketa horietan aurrera joan ziren bertsolariak, hemengo saio honetan parte hartu zuten, bapelketara joango ziran bi aukeratzeko. Saioa Ernanin egin zen 1962ko abenduaren 10an. Lehenengo Mitxelena eta bigarren Lazkao-Txiki gelditu ziran, eta hauek joan ziren txapela jokatzera Gipuzkoatik. Beraz hemen aurkezten ditudan bertsoak Ernaniko saio horretakoak dira. Argitaraturik gabe daude, eta grafia dagoen bezala uzten dut, izki pikordunak kenduta. Erraz ulertzen dira abestutakoak¹. Bestalde bertsoen neurriak ere dauden daudenean utzi ditut, akats eta guzti, egoera baten eta giro baten adierazgarri diralako. Gaiak ez ezik, nola osatzen zituzten bertsoak ere hor agertzen da. Iztuetak esaten duenetik bertso baten, Alfonso Irigoien ibili zen gai jartzaile.

J. M.^a Etxebarria

(1) Kanporaketa horien emaitzak eta bertsolari guztien zerrenda ezagutzeko ikus Bertsolarien Txapelketa (30-XII-1962), 13-16. orrial. Auspoa, 22. alea.

Bertsolariak

ALBERDI, Jesus Egileor — Bergararra (Osintxo)
 LAZKANO, Manuel — Azpeitiarra
 MITXELENA, Joakin — Oyartzuarra
 IZTUETA, Jose Migel: «Lazkao-txiki» — Lazkaotarra
 IZAGIRRE, Akilino «Zepai» — Errezildarra
 URANGA, Manuel — Itziartarra
 LEKUONA, Jose Luis «Lexoti» — Emaniarrarra
 GARMENDIA, Domingo — Berrobitarra

GOIZEKO JARDUNALDIA**AGURRA**

- Alber.— Nere barrena gaur alaittu du
 onuntz etorri bearrak;
 Euskalerrriyak ah gutxi ditu
 au bezin leku ederrak.
 Gauza (y) au orla agindutzen dit
 maitasunaren sugarrak,
 egunon danoi, biotz-biotzez,
 zer moduz Ernaitarrak?
- Lazka.— Gizpuzku dana ikusten det
 bertsoaren egarriyak;
 nunbait jenteak jakin nai ditu
 gure barrengo berriyak.
 Ementxen gera au asetzero
 beste gabe etorriyak.
 Lendabiziko, Jaunak, egun on,
 entzule maitagarriyak.
- Mitxe.— Barrunbe dana betea dago
 emen euskaldun jatorrez
 ta beste asko sukalde-txoko
 askotan entzuten daudenez;
 ta barrenera sartu ezin zana
 kanpoko aldean altabozez,
 bertsu onekin entzule danak
 agurtzen ditut biotzez.

Iztue.— Anai ta arreba zoragarriyak,
euskaldun itxurakoak;
badirade gaur gure bertsuak
entzutera bildutakoak;
agur eginaz artu nai ditut
goikuak eta bekoak;
eta egun on biotz-barrendik
entzule biotzekoak.

Zepai.— Arren erruki izan dezala
guri agintzen digunak,
etorri dira anaiyak eta
arrebak eta lagunak;
urtian gutxi izaten dira
gaur bezelako egunak,
etorri gabe ezin gelditu
euskera maite degunak.

Urang.— Poz-atsegiñez astera nua
Ernani ontan lanari,
gure aurrean gaur begirata
paradisua dirudi,
Oinbeste anai, arreba maite,
lendabiziko zueri,
ta radiyotik toki askotan
aitzeko zai daudenori;
lendabiziko eskatzen diot
Jaunak egun on danori.

Lexot.— Biotzetikan besarkatze 'ittut
emen dauden euskaldunak,
billera oek izaten dira
ezagutzeko lagunak,
Gu zortzi gera txapelketa au
jokatu bear degunak
ta kop'eder oi eaman dezala
obekin kantatzen dunak.

Garme.— Gu zortzi lagun etorri gera
kantatutzeko pozean
ta ainbat euskaldun ikusten ditut
bertso berriyen gosean,
Beti eztago errex moldatzen
batek nai lukeen klasean;
batzuk aurrean bearko degu
beste batzuek atzean,
zuen gustora egingo degu
okerrik izan ezean,

II gn. SAIOA

Zortzi bertsolariak, Ernaniko baserri bateko familiakoak dira. San Juanetan guztiak base-
rrian aurkitzen dira. Bazkal ondoren bertsotan asten dira:

Iruna bertso:

Alberdi (Apaiza)

Ai gazte maite, zure osaba
dua zuri tentatzera
zure bideak abitu nai det
nik gaur golpez negurtzera;
osabagana sarritxuago
zatoz zu konfesatzera,
lengo bideak utzi itzazu,
oker diranak atzera,
edo bestela kondenatuta
inpernura juango zera.

Lazkano (Aitona)

Lanean pasa ditu aitonak
bizitzako urte gustiyak,
lan gaizto asko emana dit nei
famili au dana astiak;
orain nastuta ikusten ditut
gorrotuz bata bestiak....
ainbat nekeren ondorenean
benetan gauza tristiak!
Nik neronena betia daukat
or konpon zaite guztiak.

Mitxelena (Aita)

Gure etxian bizi modu bat
zoragarriya daukat nik:
nere aitonak jolas guztiak
biotz onez eramanik.
Osaba bat'e apeza ba-det
Ameriketan izanik,
beste senide otso batzuek
morroiarekin egonik;
etzait iruditzen etxe bat danik
obetogo bizi danik.

Iztueta (Osaba amerikanoa, ezta legorra)

Zorioneko egun eder au
degu San Juan eguna
aparte geunden zenbait senidek
gaur alkar topau deguna.
Urte askotan Ameriketan
neukan bizitza illuna,
bañan azkenikan iritxi det
neure goguetan nuna;
ara berriro bilduikan gaur
dago senditza kuttuna.

Zepai (Mayorazgua, 24 urteko mutila)

Nere barrengo sentimentua
nai nuke adierazi,
naguen baño debillo ez det
nere bururik ikusi.
Gau eta egun lana egin da
gu ezin gerade bizi...
Gure ama kuttunari're
urtiak juan igesi,
oeta (b)ost urteko mayorazgoak
ez al du andre eder bat me(re)zi?

Uranga (Anaia, soldadua; Afrikatik permisuairekin etorri dana)

Nere anaia biotzekoa,
bear didazu gaur entzun;
ai zuk eta nik txikitikan
degu ainbeste maitasun!
Enteratu naiz zuk ere laister
nola esposau bear dezun;
baña ni andik etorri eta
miseriz nola naukazun,
gau baterako diru pixka bat
preparatutzen didazun.

Lexoti (18 urteko anai; baserrian bizi da)

Amairu urte nitun, ni nintzen
aurrikan lanin asiya,
biarra zer dan gaztetandikan
ni naiz ondo ikasiya,
Andik aparte berriz lanian
etxian asko ikusiya,
beti anayai entreatze'iot
irazitako guztiya.

Garmendia (Etxeko morroi zarra)

Anai ta arrebak, neure bizitza
 tristeia eta elkorra
 orregaitik neure gorputza
 plakua eta igarra.
 San Juan jaiak dirala eta
 danak juerga eta parra
 etxe orretan ba dago noski
 morroi zarraren bearra.

Alberdi (Osaba apaiza)

Osaba apaiza gaur milla gauza
 ernetzen zaio burura,
 ta iñork eztu etortzerik nai
 ni bizi naizen lekura.
 Erakutsitzen saiatutzen naiz
 bide onezko oitura,
 errezo eta dotriña onak
 beti bear diran kontura,
 iltzen naizenen gure Jainkuak
 sartuko al nau zerura.

Lazkano (Aitona zarra)

Aisatzen zaitut zure etxean
 nere ordezeko jarriya,
 ezkon-lanetan otz ote zauden
 ongi nago igarriya;
 artatik dator familiyaren
 galera izugarriya,
 anai trastoak bidali'tzatzu
 ta jarri andre berriya
 ori egiten ezpadezu zuk
 galdu zaigu baserriya.

Mitxelena (Aita)

Aita zararek etxe onetan
 ez dauka asko pozterik;
 semeak ere bide txar asko
 ikasi zuan gazterik.
 Irabazitik ez du pentsatzen
 txanpon bat iñoiz uzterik,
 da morroial're nai duna egin
 ez daukat galerazterik,
 aita zarrentzat ez da etxian
 naigabe txarra besterik.

Iztueta (Osaba amerikanoa)

Etxe onetan ederki nago
illoba, aita ta anaiz,
Ameriketatik etorri eta
esperantzatan nolanaiz.
Besteak gaizki'dabiltza baña
baso goratutzen zait maiz;
Izan'e berez au izan degu
gure etxearen lan-gaiz
eta juratu!, zu morroi zarra,
zuretzaz oroituko naiz.

Zepai (baserriko mayorazgua)

Juan daneko zenbat urtian
baserrian gera bizi;
Iana eginda gaitzikan nik ez
det ezer ikusi.
Egiten danik ez da ordaintzen
nai nuke adierazi;
bañan alare ola uzterik
nola ez duten merezi,
laguntzallerik ezpaldin bada
laister juan bi'et i(g)esi.

Uranga (soldaduzkan dagoena)

Soldaduzkaren suerte orrek
nauka Afrika-ko partian
denpora pixkat pasa bearra
neure buruen kaltian;
aizu, anaiya, nigaz zu pixkat
ia gogora zaitian
nik ez daukat ona etortzerik
emendik ara juatian,
ezta (y) asko zuzentzea 're
emen nagon bitartian.

Lexoti (fabrikan dabillen anai gaztea)

Fabrikan ere ni maite naute
ez bai det iten okerrik
etxian ere gaur bitartian
ez daukat pama txarrik;
irabaziya anaiyai eman
eztago esan biarrik,
bost duroko bat nei ematen nau
San Juanetan bakarrik.

Garmendia (morroi zarra)

Morroí zarraren bizimodua
 beti erdi-negarrean
 ai! goizetikan illuntzera lan
 atxurrarekin lurrean.
 San Juanetan zuek festan da
 ni ukullu baztarrean;
 amerikanoa're ondo dagola
 zillarrean da urrean...
 ni ere zuen anaya naiz
 Jaungoikuaren aurrean.

Alberdi (osaba apaiza)

Erri txikiko erretorea
 nola nagon jakiñean
 ni beti beintzat saiaturko naiz
 otoi berdin-berdiñean.
 Urte askuan nola nabillen
 Euskalerri-jardiñean
 nere otoitzak juango dira
 goraño bide fiñean
 nere bitartez sartu zaitezten
 danok zeru urdiñean.

Lazkano (aitona)

Ara, apaiza, zuri itztxo bat
 nago esan bearrean:
 martxa koskorra ikusten bai det
 gure baserri zarrean.
 Iñork lanikan ez du egin nai
 sortu giñan lurrean;
 al baldin bada nik familiya
 jarri nai det indarrarian,
 aspertutako neska zarren bat
 ez al da zure errian?

Mitxelena (aita)

Ni naiz etxeko guraso zarra
 kantatzeko atsegiñez;
 ez det bizi nai, osaba, morroi,
 ta semeak uts egiñez;
 morroiak ere lan asko eta
 ornen dago jan ariñez;
 mundu pixka au zetan pasatu
 bea'ugu bide samiñez?

Batak bestea serbi dezagun
izerdiaren ordañez,
gauza pixka da, dakiguna da
gu bizi geran lur-gañez;
zertan onela asarre bizi
gaizki mintzatuz mingañez?
Esan liteke, bizi gindake
gu oso era apañez,
Baten faltean besteak beti
okerra beste ordañez.
San Juanak emen datozte
eztait zerbait eragiñez
eta etxia betia daukat
ollasko eta txanpañez;
famili dana nerenganduta
nai nuke erabat fiñez
auekin emen bertsuk botata
bazkari on bat egiñez.

Iztueta (osaba amerikanoa)

Anai ta illoba, mutil da morroi,
zurikeriyan aziyak,
usaiya bai du Ameriketan
eindako irabaziyak;
baña guziai ezin liteke
gaur kunplitu gutiziyak,
morroi zar onek gure (y) etxien
ba-ditu urte luziak
eta berari uzten dizkiot
nere ondasun guztiak.

Zepai (mayorazgua)

Gaur goizian'e goiz askorikan
ni nola naizen jaikiya,
baserritarrak izan biar du
ganaduan errukiya;
ni ere enaiz garai batian
bai gutxi edukia.
Orregatikan mundu guztiyak
dauka nere inbidiya;
gure etxean ere ba-dago
morroi on baten premiya.

Uranga (anai soldaua)

Anai maitea, erruki zaitut
 orain zure esanian,
 ikusten zaitut aspaldi ontan
 oso bide zuzenian.
 Gizarajua gau eta egun
 larri or dabil lanian,
 baña ni ere libratuko naiz
 urtiaren azkenian;
 ez apuratu, konponduko gera
 etorritzen naizenian.

Lexoti (18 urteko anaia)

Fabrikan ere billatutzen det
 neretzat lana bear aña;
 etxian ere, gaztia naiz-ta,
 egiten naute engaña;
 beste zarragok, gogo-utziyagok,
 lanari artu tamaña,
 biartu naiz-ta, arrazoi auxe
 jakin nai det alajaiña;
 gero zer dote izango deten
 esan naizak ba, anaiya.

Garmendia (morroi zarra)

Amerikanoari esan bia'izkat
 anbat arrazoi egizko:
 lengo bertsuan neretzat ditun
 ainbat izketa mamizko.
 Asarretikan len ondo gaude,
 ori ez det nai berrizko;
 pentsamentua nei egitea ez da
 zure famili gogozko.
 Nik morroi segituko det eta,
 adiskide, eskerrik asko.

III GN. SAIOA (BINA-BIÑAKA)

ALBERDI ETA LAZKANO

1 GO. ALBERDIRI BI PUNTU

Edaririk onena
degu ur garbiya.
Nik ez det sinistutzen,
oi ezta egiya.
Astelenetan nik ba-det
geioren premiya.
Urak legortutzen du
nere eztarriya.

Nazioen artean
gera asten bada,
nere buruko illea
orduan joango da.
Esaten dutenaz, orrek
orain dauka moda;
egia baldin bada,
gauz au galdua da.

Lazkanori beste bi puntu

Auzoko sukaldian
lukainka zintzilik;
izugarritzko txerria
izan bea'ute illik.
Arrapatuko banitu
joanikan ixillik,
orduan ez uke izango
olako mutillik.

Pobria naiz, ez daukat
urre ta zillarrik...
gaur dauden txanpoi zarrak
patrikan bakarrik.
Ala ere ez daukat
iñoren beldurrik.
Osasuna dunak ez dik
ontasun bearrik.

2 GN. OFIZIOA EMANDA IRUNA BERTSO.

Alberdi (jatetxean bazkaldu duena)

Janari gutxi barruan dula
 ekarri dezu platera;
 dudarik gabe nik neu gosiak
 nijua ordanatzera;
 galanki kobrau didazu eta
 zuk zeuk kontuak atera:
 zure etxera berriz ez nua
 ni bazkairikan jatera.

Lazkano (jatetxeko nagusia)

Etxean nitun janari danak
 kasik ditu barrenean;
 au jan artean pozik jardun da
 aserretu azkenean;
 pentsatuko du ni or galeran
 segitutzea lanean;
 gero zer jan dun aztu egin zaio
 edanez pasa danean.

Alber.— Pagatuta're ondo jatea
 baida nere desiua;
 baño (y) orrela ez det ikusten
 nik zure kondezuiua:
 jan gutxi eman da galanki kobrau,
 zeuretzat negoziuiua...
 Zuk ere ondo ikasi zendun
 Judasen ofiziuiua.

Lazka.— Aitor nezake, eztijoala
 goseak eta egarri,
 ez jakiñean iñor badago,
 kolorean zaio igarri.
 Pagatutzeko dirurik ez ta,
 orain dago parregarri;
 urrengoan zatozenean
 diru geiago ekarri.

Alber.— Diru pixka bat erun bearko,
kobratzen zalia zera;
zure etxetik ni inoiz triste
naiz lenago're atera.
Amar balio duana ogei
inguru kobratzen ai zera.
Bukaera txarra zuretzat dator,
mudatutzen ezpazera.

Lazka.— Tabernariyai nai likena
dun konduta ona kendu;
ai! nik ez baña kliente txarrak
gaizkigo ukatzen du.
Gose xamarrik ote dijoan,
lotsik gabe esaten du.
Obe zenduke aldian sari
orrela jango bazendu.

3 GN. LAU PUNTU EMANDA.

Otzik, pozik, zorrotzik, bildotsik.

Alber.— Neure buruan ez daukat
iñundikan otzik;
barrua eztadukat
gaur ziero pozik.
Etxian baneduka
iltzeko bildotsik,
jiratuko nuke nik
kutxillo zorrotzik.

Pikardiya, erdiya, enbiriya, aundiya.

Lazka.— Gaurko persona askok
duan pikardiya,
naiz ta berak ez izan
talentu erdiya.
Albokuarentzat beti
dute enbiriya,
gero orrek sortzen digu
galbide aundiya.

MITXELENA ETA IZTUETA

1 GO. BAKOITZARI BI PUNTU.

Mitxe.— Gu ilgo gera, baña
 ba-datoz gaztiak,
 ori jakingo du ba
 gaur mundu guztiak,
 pena eman arren ba
 lurra au uztiak,
 lekua bear bai dute
 sortzeko bestiak.

Ezkontzea da gauza
 txarra eta ona,
 gizona danari beti
 gustatze'io gona,
 t'ori da alkarrentzako
 egiña dagona,
 bestelan nondikan sortu
 andre ta gizona?

Iztue.— Batzuen zoriona
 besten naigabia:
 au da batzuk pozetan
 pena geiegia.
 Inpernua ta zerua
 diferente dia...
 Ez danak zorionak
 izango balia.

Euri premi aundian
 jendiak zebiltzan;
 aspalditxuan ez da
 bustitzerik izan.
 Nekazaria dabil
 errukizko gisan;
 nola len belarrik gabe
 aldrebes dabilztan

2 GN. OFIZIOA EMANDA IRUNA BERTSO.

Mitxelena (Donostian soldadu dagoena)

Aizu neskata, ne baztarrean
gauza polita zu zaude;
eta entzun det Donosti ontan
ornen zaudela mirabe;
da nik ez daukat ordu onikan
iñoiz zu ikusi gabe;
mundu onetan egin nahi nuke
ni zure gorputzen jabe;
era ortako izar polita
nungo alaba zerade?

Iztueta (Donostian neskame, mutillaren nobiyo)

Beraz, mutilla, gustatu zera
era ontako landarez;
apartexego egon zaiteze,
ala eskatzen dizut faborez;
gaurko mutillen berri jakiten
ez bai dago oso errez;
neskatxai gauza txuriak esan
josta nai luteke parrez...
Zui gustautako izar polita
goierritarra da berez.

Mitxe.— Zuekin bildutzen naizen ordutik
biotza daukat festean;
zorioneko soldaduzk'onek
nauka laguntza eskean;
neskatxakin'e ezin naiz egon
neuk nai deten ainbestean;
baiñan amaren launtzeko ere
nola etxean iñor eztean,
aber gu biok elkartzen geran
erropa txar ok uztean.

Iztue.— Nere iritziz, mutilla ere
zerade eder askua;
izketan beintzat maite nazula
ematen dizut juzgua.
Onduan zaude eta ez uste
nagoenik zapuztua;
bañan ez baida siñistekua
zenbait mutillen kontua;
biotzez maita zadazu baiñan
geldik eduki eskua.

Mitxe.— Beira, neskatxa, nere esanak
 ez dira gero lizunak;
 garbi ta argi eaman nai ditut
 munduko eginkizunak;
 zu neregandu nai zaitut beintzat
 launtzen banau osasunak;
 ta zuretzat eskeintze'izkitzut
 nik dauzkaten ondasunak;
 eta eskua mugiazten nau
 biotzan berotasunak.

Iztue.— Ene mutilla, esan didazu:
 maitatzen zaitut biotzez;
 eta ni ere mutil onakin
 eneiteke egon lotsez.
 Gaur Donostiko neure etxera
 ni biurtuko naiz pozez,
 zure kontu polit eta gañera
 esan dizkidazun gauzez...
 Eun batzutara antz emango d'izut
 egitan zabiltzan ala ez.

3 GN. LAU PUNTU EMANEZ.

Illunabarrian, aurrian, ederrian, laburrian.

Mitxe.— Len esan dedan neskatzak
 illunabarrian
 ondotik bialtzen nau
 tarteka aurrian,
 bidean kotxen batek
 joko naun beldurrian,
 naiz juan ber izanarren
 bide laburrian.

Deguna, eguna, biguna, laguna.

Iztue.— Nere mutil jator au
 biotzez biguna,
 nork eztu estimatuko
 olako laguna.
 Lasai egon, irixiko
 zaigu eguna,
 biok batera pozez
 pasako deguna.

ZEPAI ETA URANGA

1 GO. BAKOITZARI BI PUNTU

Zepai.— Dantza lotua Ernanin
egiten da lasai;
gazte asko nola dauden
orretarako zai;
jira ta bueltaka
makiña bat etsai;
gauza orrekin konforme
ez dagola Zepai.

Gazterikan dituzu
zuk zazpi nobiya;
zuk orain esan dezuna
eztala egiya.
Nere denboran beti
egitan naiz saya;
ez daukat, baña
ba-daukat premiya.

Uranga.— Inpernuko legatzak
dirala aberatsak;
ara joandako animak
kottaduak, latzak.
Nik galduak daduzkat
orren esperantzak;
uste't artuko'it'tutala
San Pedro'ren giltzak.

Pikaruaren kulpaz
pagatzen du onak;
gauz ori lendabiziko
pentsau ber gizonak.
Bide orri aurrera
ematen dionak,
gauz ori egiten dutenak
ez dirade danak.

2 GN. OFIZIOA EMANDA IRUNA BERTSO.

Zepai (Txartelik gabe bertsoak entzutera joan dan goierritarra)

Goierritikan etorri'ranak
geiago ere badia;
bertsolariak entzutiarren
ekarri degu idia;
Poz askorikan nik billatu det
ate ontara bidia...
Nola gaur jarri dezute?
Auxe formalidadia!

Uranga (sartzea galerazten dion atezaia)

Gaur Eraniko bertso itia
zen aspalditik egiña;
ta periodiko ta radiotik
egin degu alegiña.
Berandu xamar allegau danak
dauka kobratu eziña;
zuk ere entrada izango zendun
leno akordau baziña.

Zepai.— Munduan ba-da aittu nai duna
makiñatxo bat landare;
erremeditu ziteken ori
denbora pixkat juanda ere.
Zuretzat etzan galera aundirik
neri debalde emanda're...
Billeterikan ez dagolako
erdiak kanpuan alare.

Uranga.— Emen askorek pentsatutzen du
sarri bakoitzak beria;
zu bezelaxe ate ondoan
asko geldituak dia.
Nik ezin naike, lagun maitea,
gaur utzi libre bidia;
ez pentsa gero ziñe maite au
danik izatez neria.

Zepai.— Ail a ze gogua ar diazu
izandu zaitut maitia;
ez jakiñian baldin bazaude
orain entera zaitia;
aundiya eh dezu ate onduan
nere kontra egitia;
kargu ori berriz artzen badezu
obeto saia zaitia.

Uranga.— Lagun maitea konformau bear deu
ail alkartasun obian;
ez al dakizu ate-gizonen
kontu asko nola dian.
Goiz partetikan sarreraik ez da
gelditu zera bidian;
gero emango dizut bat eta
etorri arratsaldian.

3 GN. LAU PUNTU EMANEZ.

Garra, zarra, parra, indarra.

Zepai.— Pixkat berotutzian
artzen degu garra;
jendiak orregaitik
egiten du parra.
Ba-dakit urtiak junda
nola nagoen zarra;
orregaitik gorputzian
falta det indarra.

Maia, jaia, anaia, alaia.

Uranga.— Nere emazte maitea,
preparatu maia;
gaur bota bear degu
egundoko jaia.
Kanpuan egondurik
etorri da anaia;
gero egingo degu
tertuli alaia.

LEXOTI TA GARMENDIA

1 GO. BAKOITZARI BI PUNTU.

Lexoti.— Sapelitze batian
joango ote ziñake?
Kontesta emango dizut
lenguaren truke.
Biraji oiek zer diran
ez dakigu guk 'ere,
bañon pozikan ortan
saiatu nai nuke.

Sasoia dunak eztu
sentitutzen otzik.
Etzazula esan neri
gezur edo saltsik.
Nik berotzeko ez det
bat'e esperantzik;
sutan dagonak ez dago
Lexotiren antzik.

Garmendia.— Prenda estimatua
gizonen biziya.
Gazte-gaztetatikan
nago ikasiya.
Gure mundu au ezpaita
gauza itsusiya;
izan dezagula urte
askoko graziya.

Artzairik abillenak
ezin gaitu ondu.
Jende gaiztua dan lekuan
emen naiko lan du.
Aita Santuak oraindik
orain esan du:
dotriñ berriya sortuta
eingo geala ondu.

2 GN. OFIZIOA EMANDA IRUNA BERTSO

Lexoti (motorren dijoana; oñezkoari anka ausi dio deskuido)

Motozikletan lengoan nijun
emendikan apartian;
nei Lekunberrin oi gertatu zait
Naparruko erri batian:
oñezko au kamiyoa atera
oi! zat neretzat kaltian,
eta nik anka ausi niyon ba
jo ta deskuido batian.

Garmendia (oñezkoa)

Gaur motorrean dabilzan askok
daukate buru ariña,
Gañean jarri, martxa aundian joaten
eiten dute alegiña.
Ta nere anka gaxuak ba-du
Lexotiren utsegiña;
an okerrikan etzan pasako
eskubin juan baziña.

Lexo.— Oñezkuak'e beti eztabiltz
Jaungoikuaren legian;
ni ondo nijuan nire ustetan
kamiyuan don legian.
Motuarekin ni beti motel
ibillitzen naiz beti an.
Ni eskuetik nijuan baño
au zegon kontrabidian.

Garmen.— Nere eskua ezkerra zan da
ni ibiltzen andik asi.
Au baño mutil traketsagorik
oraindik ez det ikusi.
karneta atera baño len
motozikleta erosi...
ai! orregatik pasatutzen da
emen ainbeste desgrazi.

Lexoti.— Nik motuakin io nuen eta
 onek artu zuen miña;
 frenuak ondo ematen ere
 egin nuen alegiña.
 Oñezkuak ere ezpaitu izaten
 danak talentu berdiña
 desgrazi ori etzan pasako
 zu jator juan baziña.

Garmen.— Gaur dabiltzan motozikleta oiek
 ondo daude indarrean,
 ta aien gañean dabiltzan asko
 oso itxura txarrean.
 Lexoti au're lenbizitikan
 jokabide okerrean...
 Onek obe luke artzai ibilli
 Ernion o an larrean.

3 GN. LAU PUNTU EMANEZ.

Ajia, korajia, birajia, garajia.

Lexoti.— Gorputzian eztauka
 Lexotik ajia;
 lenguan Lapurdira
 ein det birajia...
 Arratsin ibiltzeko're
 bai det korajia...
 Ardiz betia daukat
 nere garajia.

Justiziya, biziya, nagusiya, auziya.

Garmen.— Juraduak ein bear
 dute justiziya...
 Teatru ontan dago
 bertsuzko biziya..
 emen bakarrak bear du
 izan nagusiya...
 Onenak irabazi
 dezala auziya.

III GN. SAIOA.

Zortzi bertsolariak bertso bana Txirritari buruz. Bakoitzak nai duan doñuan kanta lezake bere bertsoa: naiz, aizak,i motell, Mañontzi'renean', naiz «Gure antziñako guraso nobliak», naiz «Ikusten duzu goizean», naiz «Uso zuria» edo beste edozein doñuan.

Alber.— Txirrita jauna, Emanikoa,
beti dadukat goguan;
izan ere ah kantari ona
jatorritikan zeguan,
emen izan da beste mundura
ura're zala bai jua;
nere partetik nik desio det
egon dedilla zeruan.

Lazka.— Ail, gizon ori bertso lanari
eskeñi zan gazterik;
zoritarrean, ez nuan izan
nere begiz ikusterik.
Arbol zar arek etzun merezi
igartu eta jausterik...
Aren onduan gu ezkerade
orri ximelak besterik.

Mitxe.— Txirritaren izenaz
zalla dago galtzen...
asi ta galdetzen
ura bezelakuak
zail dira billatzen.
Bertsolari guztien
txapeldun izan zen.
Ernani onetatik
ainbat gauz on sortzen...
ta zerura sortu zan
Ernaniko Latsen,
ta zerura sortu zan
Ernaniko Latsen.

Iztue.— Txirrita zanen aitzera asko
entzundakua nago ni!
baña nunbaitez, biarra latza,
artean gazte nintzan ni.
Zenbaitu gusto bere bertsoaz
eman zenbait gizoni;
bere seaska zu izan ziñan,
zorieko Ernani!

- Zepai.— Bat eliteke oraiñ abittu
gizon obiaren billa.
Amaika broma eder jarria,
leiala eta umilla.
Nik aginduta gure Jainkuak
ura nola etzuen illa,
biotzetikan erregutze'iyot
zeruan egon dedilla.
- Uranga.— Txirrita zana nola il zan
Ernani ontan sortuta,
Jaunan graziyan gaurko egunez
dago zeruan sartuta.
Gizarajua zenbatsu bertso
eder, goxo, kantatuta ...
Gu ezkerade ezertxo ere
zurekin konparatuta.
- Lexoti.— Txirrita zana plaza askotan
len eman zuen pausua...
Gu bertsolari erdiak gera
ua zan berriz osua.
Eozin tokitan kantatzeko're
ah gizon kurajetsua.
Erri ontako semia izan zan
bertsolariyen maisua.
- Garmen.— Txirrita zanak korrittuko zun
ainbat erri eta plaza;
ainbat ertenda sagardotegin
gero igual denpora pasa.
Euskaldun onak maiteko zuen
aren bertsozko jolasa...
baiñan arek zun ofiziyuak
oraindik ba-du arnasa.

ARRATSALDEKO JARDUNALDIA

Goizeko zortzi bertsolarietatik lau onenak aukeratu zituen Juraduak arratsalderako. IZTUETA, MITXELENA, GARMENDIA, ta LAZKANO, dituzu aukeratutako lau bertsolariak.

IZTUETA TA MITXELENA,

1 GO. BAKOITZARI BI PUNTU EMANEZ.

Iztue.— Laister emakumeak

itoko gaituzte;
gauza ori pentsatuta
neu're nago triste.
Irigoien ez al da
izango ainbeste!
Zuk ala diozu baña
nik ez det oi uste.

Kontrabando zaitzaille
onak daude orain.
Aspalditxo onetan
dabiltzade bikain.
Mugetan bizi danak
jakingo du nik ain...
Tranposuak artu biar
dtugu orain gain.

Mitxel.— Laister sotanik gabe

ditugu apaizak....
zerbait eskatzen bai du
munduaren gisak.
Probetxu gútxi ote du
eindako otoitzak?...
Zerbait pentsamentu eskatzen
ez al du Elizak?

Ura edaten bada
sabeiak gur-gur-gur;
guk eztegu edaten
askorek ainbat ur...
Bertsuak kantatzeko
orrekin ga' beldur..
len juxtu geranari
jo azten digu lur.

2 GN. OFIZIOA EMANDA IRUNA BERTSO.

Iztueta (mayorazgua)

Aspaldi ontan, ai neskatzatxo,
 ezker a biyok egondu;
 baiñan alare neregantza
 etzera beti illundu;
 ni baserriko mayorazgua,
 zu kale orretan jaundu,
 orain aukera ipintzen dizut
 nai bazenduke ezkondu.

Mitxelena (kaleko neskata)

Ezkondutzeko mandatutxo bat
 bialtzen nazu asieran,
 ta badakizu kalean ere
 gu nolatsu bizi geran.
 Ezkontzak ere ez dira egiten
 ain momentuzko joeran,
 lendabiziko jakin nai nuke
 nolako mutilla zeran.

Iztue.— Ni zer mutiko eratsu nagon
 beiratu zazu musura.
 Nik ez pentsatu dadukatenik
 biotza ainbat hura;
 bañan, kaletar neskatzatxua,
 jarri gaur nere kargura,
 ez dezazula beintzat ibilli
 gaur arte ainbat pintura.

Mitxel.— Kale onetan nere gorputza
 daukat laiken dotorena,
 da mayorazgo mutiko onek
 beiratzen dau neregana.
 Baldin da gu biok aile bildutzen
 bagera alkarrengana,
 onez aurrera pinturak dira
 bei zarren isatsarena.

Iztue.— Neskatxatxua, ez da egoki
burla egiten geiegia;
baldin zuk izan nai bazenduke
nere egizko nobiya.
Jakingo dezu baserri lana
eta ango gauza larriya.
ikastearren nola sortzen dan
eguneroko ogiya.

Mitxel.— Orain arteko ezkontzak noski
ez dira ola etenak,
da gauza oien berri emendik
emango'izu Mitxelenak.
Maitasun ori sortutzen bai du
biotz gozoko barrenak,
da ogirikan ez du pentsatzen
ori pentsatzen duenak.

3 GN.— LAUNA PUNTU EMANDA.

Enborra, satorra, gogorra, zorra.

Iztue.— Ni nago emen diru
ditenan satorra.
Zenbait jaten egiten det,
etxiari zorra,
Mitxelena elegoke
olako enborra,
eramango baluke
bizitza gogorra.

Balea, alea, zalea, arrantzalea.

Mitxel— Itxasun billa balaike
olako alea,
arrairik aundiena
bai degu balea.
Arrantzalia izaten da
gauz oien zalea.
Olako txikiyarekin
gaizki arrantzalea.

LAZKANO ta GARMENDIA**1 GO. BIÑA PUNTU BAKOITZARI**

Lazka.— Euskalerri guztiko
 txapelketa laister.
 Danak aprobatuak
 sagar eta zuzter.
 Ez itzatzutela egin
 gauzak beintzat oker;
 merezi dunari eman
 bear ainbat esker.

Laister San Tomasetan
 Donostiyan festak.
 Jenbeak egingo ditu
 eundoko protestak.
 Aspalditik zeuzkaten
 bertsuaren kezka....
 atzeratu egin dutela
 nei esplikau zeztak.

Garmen.— Nor geldituko ote da
 Donostin txapeldun?
 Bertsolari onenak
 diiade ezagun.
 Mordozka bat joango dira
 alkarrentzat lagun,
 An'e obetsuenak
 bai dira ezagun.

Iru atxurrentzako
 ara iru kirten.
 Zuk'e jakingo dezu
 alakoren baten.
 Uste baño legorte
 aundiyagua aurten;
 protxurik ez dan lekuan
 zertan lanera erten.

2 GN. OFIZIOA EMANDA IRUNA BERTSO

Lazkano (neskame gabeko etxeoandrea)

Ara neskatxa, zure jokera
nik ongi ez det ikusten,
begira gaur gu bajuko auek
nola artutzen gaituzten...
Nere senarra gau ta egun ai da
lanean or buru austen...
Ark berak ere bi milla pestik
ez du erre irabazten.

Garmendia (etxeoandreaki neskametzat eskeintzen zaion neskatxa)

Aterik ate nebillen eta
ni allegatu onena;
auxe da nere ibillera onek
gaur dakarren ondorena.
Etxekoandre onen jokabideak
neri ematen dit pena...
Zuk ezpadezu oi pagatu nai
joango naiz besten batena.

Lazka.— Zere burua eskeñi dezu
neskatxa, gure etxera;
neroni ere konporme nago
dama gazte zu artzera.
Baña garbiro emango dizut
golpez nere parezera:
milla pesetan etorri zaitez
konformatutzen bazera.

Garmen.— Etxekoandre oni ustegabeen
billatzen diot akatsa:
uste al dezu ni nabillela
emen gaur denbora pasa?
Milla peseta bakarrikan nik! ...
oi da egundoko tatxa!
Biar'e nunai ezta izango
ni bezelako neskatxa.

Lazka.— Beste dama bat etorria zan
 atzo zure auzotikan;
 galdera auek egin nizkion
 berai elduz besotikan:
 Zer esan zidan esango dizut
 gaur nik biotz osotikan...
 ark esan zidan zuk zenekila
 ardi zaitzen bakarrikan.

Garmen.— Nik ardi zaitzen nere bizitza
 bai pasatua det sano;
 nayago nuan pentsamentu au
 artu izan banu leno.
 Umildadean etxeakoandre bat
 serbitutzeko emen no;
 geio pagatu nai ezpaldin bau
 neskamerik gabe Lazkano.

3 GN.— LAUNA PUNTU EMANDA.

Galera, aurrera, tankera, aukera.

Lazka.— Emen juraduak du
 erabaki aukera;
 ta aurki eman diyot
 gauzari tankera.
 Garmendia, guretzat
 zetorrek galera;
 bi gazteak atzean,
 bi zarrak aurrera.

Kea, pakea, nekea, sakea.

Garmen.— Bertsolayak alkirri
 atera nai kea;
 gauza danen gañetik
 bear da pakea..
 Gazteak zarrak segitzen
 ba'utela nekea;
 nik beti estimatzen det
 olako sakea.

IZTUETA ta MITXELENA

1 GO. BIÑA PUNTU BAKOITZARI

Iztue.— Zuk jan nai al dituzu
orain odolkiok?
Janari ori probatuko
genduen danok.
Emen odolkiyak danak
ez ezertan gaur nork...
Nik jandakorik ez du
beintzat jango inork.

Gizonari on zaio
kopa bat gorritik;
baña guk izaten degu
gauz ori urrutik.
«Etzazu, Laxkano, edan...»
esaitেকে betik,
bi aldetara bal-balantzan
ez eiteagaitik.

Mitxel.— Mukiak ditudanak
egin dezala zintz.
Gauz errekin beti
apuruan gabiltz.
Negu tristea onek
sortzen ditu aldiz...
Obe genduke negurik
etorko ez balitz.

Ederki egiten da
bazkaldu Ernanin:
gaur neronei're jarri naiz
lirain eta berdin.
Maya're apaña zegoen
txuri eta urdin;
olako bazkairik ez nun
aspaldian egin.

2 GN.— OFIZIYUA EMANDA IRUNA BERTSO

Iztueta (Santagedako ero bat)

I, Mitxelena, egin biar nak
 pixka batean fabore:
 orain ixildu, kantatzeko din
 denbora ba-dek gero're.
 Biyok ezagun zarrak, baño ni
 gaur jarria nauk dotore...
 Ik ez ekikan, baño ni nauk
 emengo Gobernadore.

Mitxelena (Santagedako beste ero bat)

Entzun dezute, nere lagunak
 auzotik esan duena...
 Santagedan'e norbait ber bai da
 bat buru ein leizakena.
 Da or ere noski bereixi laike
 beraz dagoen eruena...
 au izango da guztietatik
 buru txarrena duena.

Iztue.— I, Mitxelena, ez uke biar
 postuca orretan mintza;
 dakizutena gero, etxian
 biok batera gabiltza.
 Biyok berdiña eginkizuna,
 biyok berdiña bizitza...
 Ni gobernadore nolatan egin
 eruagua banintza?

Mitxe.— Ik ez al dakik angoo gradua
 nola bai dan eruena?
 Da ori're gaur juzgatutzeko
 emen aukera dutena?
 Ik berriz emen, zintzo bezela,
 jo ezakek Mitxelena.
 An ere noski berexiko'itek
 gradua ori duena.

Iztueta.— Mitxelenari uste gabian
 atera zaio pupua;
 ta orainguan entzun biar du
 merezi bezelakua.
 Nire burutik ariña eta
 onena ere plakua...
 Biyok eruak bagera ere
 au degu aundiyagua.

Mitxe.— Eztakit zeñek artuko digun
emen eruaren plaza;
biyai beirata emango digute
entzule guziyak traza.
Onek burutik asita bera.
ah dauka gorputz eskasa,
buru txiki au ezta eukiko
noski sendatu erraza.

3 GN.— LAUNA PUNTU EMANDA.

Egiña, gordiña, jakiña, zikiña.

Iztue.— Erua beiñ'e ezta
izaten jakiña;
naiz gorputz itxuratik
eonarren gordiña.
Bestera izaten da
txarra ta zikiña,
kanpuan aziyo gaizto
batzuek egiña.

Antza, dantza, arantza, zalantza.

Mitxe.— Erua danak ba-dauka
amaika zalantza..
Eztu sentitzen sartuarren
gorputzez arantza.
Aruntz-onuntz ibiltzen dek
salto eta dantza,
nola bera erua dan
ezin eman antza.

4 GN.— BAKARKA, BERTSOLARI BIEI PUNTU TA GAI BERDIÑA EMANEZ.

IZTUETA

a) Lore bat sortu da
 baratz ederrean.
 Neu're aspalditik nago
 lore bearrean,
 eta egokitu zait
 aukera onean.
 Ea, lorea, ongi
 Konpondutzen gean.
 Mozkortzen danak ez ein
 iñola negarrik,
 negar ez dute egiten
 sanuak bakarrik.
 Iñork arrapau al balu
 ain mozkortza txarrik,
 ez siñistatu egingo
 duenik parrerik.

b) Gaia: Baserri uts batekin arkitzen da bertsolariya mendian. Erdi eroria dago baserriya, untzaz josia, ta tellatu erdiya falta zaio... Arma-arria ere pitzatua dauka.. Baserriya zurea edo beste batena dala pentsa dezakezu.

Leno semiak asitzen ari
 zu ziñaden, basarriya...
 Gaur untzan mende bizi zerade
 eta erdi eroriya.
 Zure epelean zenbaitu semek
 jan ote zuten ogia?
 Lengo lekura zu aldatzia
 ez al genuke obia?

Baserri zarra berritu bedi
 goiko Jaunaren laguntzak...
 Zorigaitzian zure antzera
 gaur asko dauzkagu utsak.
 Batzuek larrak estaliyak ta
 beste batzuk berriz untzak, ...
 oraindik zerbait iyo litezke
 euskaldunaren laguntzak.

Ai baserritxo negargarriya
zaude iya eroriya! ...
Zu ikusita negar malkotan
jartzen da nere begiya.
Zure semea nunbait izan da
alperra edo nagiya...
Zure azpian ikusi nun nik
lendabiziko argiya.

Ai baserritxo, zu erortzea
ezta neretzako (y) ona;
oinbeste urtez zutikan eta
gure itxaropen egona.
Baldin ni ere izan banintza
orrelako seme ona,
jaso bear nun iya eroriyan
lur jorik orain zegona.

d) Bi bertso aurreko kopa nagusiari.

Ernaniyan ez gaituzte
gu artutzen joka.
Nork esan bertsolariei
orrenbeste opa?
Eraman nai badegu,
orain da epoka.
Ta norentzat ote da
or dagoen kopa?

Emen jendia eztago
biziyo trankilla...
Ta ni ere biotzez
arkitzen naiz illa.
Gero izan ez dedin
Zenbait eskanbilla,
ongien portatzen danak
eraman dedilla.

MITXELENA:

a) bi puntu emanda.

Lore bat sortu da
baratz ederrean;
oiek ez dirade falta
euskaldun lurrean.
Poza ematen dute
begien aurrean:
t'oraindikan gaudeze
geiyon bearrean.

Mozkortzen danak ez ein
iñola negarrik.
Arek egingo duana
naigabez bakarrik.
Auzotik eiten badiyo¹

(1) Bertso hau horrela dago eta ez daukat zintarik falta dena osatzeko.